



IV FESTIVAL INTERNACIONAL
DE **CORTOS** SOBRE
SALUD COMUNITARIA



poli
med cado

www.polimedicado.org



POLIMEDILABS-EN NAZIOARTEKO LABURMETRAIEN IV. JAIALDIA:

OINARRIAK

1. ZERTAN DATZA JAIALDIA? Laburmetriak hurrengo gai/en inguruan aritu beharko dira:
 - a. **Osasun Komunitarioa**. Osasuna kontu inbiduala ez dela ulertuz eta onartuz, eta beraz osasunean eragin daiteekela, osasun zentruetatik haratago baliabide komunitarioak bultzatuz, osasuna sortzen duten beste errekurtsio eta pertsoez baliatuz hain zuzen ere.
 - b. **Egunerokotasuna desmedikalizatzen**. Bizitzaren medikalizazioa, eguneroko bizitzako gertaerak osasun arazo bihurtarazi eta osasuneko profesional desberdinengatik ikuspuntu horretatik heldu eta artatzeari deritzogu. Beraz, prozesu hau itzultzeko bideratutako ekintzak behar dira eguneroko bizitzaren desmedikalizaziorako.
 - c. **Botiken depreskripziotik, gizarte-preskripziora**. Depreskripzioa, botiken preskripzio prozesua eraistea bezala ulertuta, hau analizatu eta bere paradoxei irtenbidea aurkituz. Preskripzio soziala aldiz, kontsultara datorren pertsonari, komunitateko errekurtsio ez sanitarioak eskaintzean datza.
2. NORK PARTE HAR DEZAKE? Edozein pertsonak parte har dezake, bere herritartasuna edozein dela ere.
3. ZENBAT LABURMETRAI AURKEZTU DAITEZKE? Nahi beste laburmetrai aurkez daitezke.

4. ZER EZAUGARRI BETE BEHAR DITUZTE AURKEZTUTAKO LABURMETRAIEK?
 - a. Laburmetraiek gehienez 6 minutuko iraupena izango dute, hasiera eta amaierako karatula ofizialak kontuan izan gabe.
 - b. Ez da onartuko Filmak beste jaialdi edo lehiaketa batean saritua izan den filmarik.
 - c. Edozein etxe komertzial, produktu edo zerbitzuren publizitate zuzena edo zeharkakoa, laburmetraia ez onartzeko arrazoia izango da.
 - d. Lehenengo 3 segundoetan lehiaketaren karatula ofiziala azaldu beharko da. Jarraian, laburmetraiaren izenburua eta zuzendarien izen-abizenak jasotzen dituen karatula agertuko da, eta berauek hurrengo helbidean deskarga daitezke: www.polimedicado.org
 - e. Azken 3 segundoetan amaierako karatula azaldu behar da eta helbide honetan deskarga daiteke: www.polimedicado.org

5. ZEIN HIZKUNTZATAN AURKEZTU DAITEZKE LANAK? Laburmetraiak edozein hizkuntzatan aurkeztu daitezke. Erabilitako hizkuntza gaztelera edo ingelesa EZ den kasuetan, azpigituluak sartu behar dira aurretik aipatutako bi hizkuntzetako batean. Epaimahaiak aintzat hartuko du entzuteko desgaitasuna duten pertsonen ulermena errazteko helburuarekin gaztelera zein ingelesezko azpigituluaren erabilera.

6. NOLA PARTE HARTU? Parte hartu ahal izateko, geure web orrialdean (www.polimedicado.org) izena eman behar duzu eta 'Festival' izeneko atalean agertzen den formularioa bete. Formulario honetan, zure izen-abizenak, telefonoa eta e-maila adierazi behar dituzu. Gainera zure IFZ (espainiar nazionalitatea izanez gero), AIZ (Espainian bizi zaren atzerritarra bazara) edo Pasaporte zenbakia (Espainiatik kanpo bizi diren atzerritarrentzat) idatzi behar dituzu. Laburmetraiak hainbat zuzendari baldin badauzka, bakoitzak bere IFZ, AIZ edo Pasaporte zenbakia adierazi beharko du. Honetaz gain, laburmetraiaren izenburua eta honen sinopsi edo laburpena. Lan guztiak festival@polimedicado.org posta helbidera bidali behar dira www.wetransfer.com -en bidez.

7. ZEIN DA LANAK BIDALTZEKO EPEA? Zure lanak 2017ko maiatzaren 20tik hasita urriaren 28ko 24 orduak arte bidal ditzakezu. Behin lanak jasotzeko epea amaituta, sistema bi astez zabalik egongo da publiko orokorrak botoa eman dezan. Jarraian, bozken zenbaketa egingo da publikoaren saria egokitzeko eta epaimahaiak lehen saria eta accesita erabakiko ditu. Sariak 2017ko azaroaren 17an Gasteizen izango den sari-banaketa jaialdian banatuko dira.

8. SARIAK:
 - a. Lehen saria 1500 €
 - b. Publikoaren saria 1000 €
 - c. Hirugarren saria 500 €

9. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA: Epaimahaiaren erabakia Gasteizen 2017ko azaroaren 17-18an ospatuko den sari-banaketa jaialdian aditzera emango da.

Epaimahaiaren irizpideen arabera kalitate nahikorik ez duten lanik aurkeztuko balitz, sariak banatu gabe gera daitezke. Irabazleen hautaketa epaimahaiari dagokio eta hartutako erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.

10. LEGEZKO ESKUBIDEAK. Autoreek, jaialdian parte hartzeagatik, euren lanaren titulartasuna *Laboratorio de Prácticas Innovadoras en Polimedicación y Salud* elkarteari doako eta borondatezko eran ematen diote. Edozein kasutan, lan hauek creativecommons 3.0 **Aitortu - EzKomertziala - BerdinBanatu (by-nc-sa)**lizentziapean babestuta geratuko dira.

Babeslea:



Osatzen- Sociedad Vasca de Medicina de Familia y Comunitaria
